

BEROJAN PROIEKTUAREN FUNTSEZKO JARDUERAK

Berojan proiektuaren funtsezko jarduerak dira negozio-eredua funtzionatzeko ezinbestekoak diren ekintzak eta prozesuak. Lehenik eta behin, ekoizpena eta prestaketa dira funtsezkoak: janari beroa (takoak, sandwichak, bokatak...) prestatu, ontziratatu eta makinatan eskain daitekeen moduan hornitzea. Bigarrenik, makinen kudeaketa eta mantentzea ezinbestekoa da: makinak etengabe funtzionatuko direla bermatzea, hornidura egokia eta garbiketa eta konponketa eguneratua ziurtatuz. Hirugarrenik, plataforma digitalak eta ordainketa-sistemak kudeatzea garrantzitsua da, bezeroak ukipen-pantailaren bidez produktuak aukeratu eta ordainketa modu seguruan egin dezan. Azkenik, merkatuarekiko komunikazioa eta promozioa funtsezko jarduera da, bezero berriak erakartzeko eta erabiltzaileen gogobetetasuna handitzeko (kartelak, sare sozialak eta bestelako kanalen bidez). Jarduera horiek guztiak taldeak bertan bertan eta kontrol osoarekin egin behar ditu, know-how eta balio-proposamena zainduz, kanpoko enpresen esku utziz soilik laguntza tekniko edo logistikoak (adibidez, janari-hornitzaileak edo garraioak). Horrela, Berojanek bere balio-proposamena modu eraginkorrean eskaintzen eta negozio-eredua jasangarri mantentzen du.